Hirugarren.- Foru agindu honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, egoki iritzi eta abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondoko egunetik kontatzen hasita, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiaren jurisdikzio horretako Sailaren aurrean.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoaren aurretik, berraztertze-errekurtsoa (administrazioen kasuan, errekerimendua), foru agindu hau eman duen organoari. Hilabete izango da horretarako, honako hau argitaratu edo honen berri jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko abenduaren 28a.– Diputatu Nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

***Foru Aginduak***

## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

**8.653**

**1128/2005 FORU AGINDUA, abenduaren 19koa, Elciegoko SR-1 bizitegitarako sektoreko SUS-R-7 plan partzialaren espedientearen behin betiko onarpenari buruzkoa.**

AURREKARIAK

Lehena.- 2005eko irailaren 29an Elciegoko Udalak bidalitako ofizioa (sarrera erregistroko zenbakia: 2381) jaso zen foru aldundian. Ofizio horren bidez, udalak Elciegoko SR-1 bizitegitarako sektoreko SUS-R7 plan partzialaren espedientea bidali zion aldundiari, hala bazegokion, behin betiko onarpena eman ziezaion.

Aurkeztutako espedientea aztertuta, urbanizatzaileak eta udalak elkarrekin hartu beharreko konpromisoak betetzea bermatzen duen Hirigintza Planeamenduaren Arautegiak 46. artikuluan adierazitako agiria eskas duela ikusi da. Agiri hori udalari eskatu zitzaion, eta berori aurkeztu bitartean ez zen administrazioaren isiltasunaren bidezko onespena aitortzeko epea betetzen hasiko.

Agiri hori, sustatzaileek aurkeztutako abalen fotokopiek eratutakoa, 2005eko azaroaren 14an jaso zen erregistroan (sarrera zenbakia: 17487).

Bigarrena.- Espedienteko agiriak aztertuta, ondokoak ondorioztatzen dira horiek izapidetzean:

A) Udalbatzak 2005eko uztailaren 8ko osoko bilkuran plan partzialari hasierako onarpena ematea eta plan partzial hori hilabetez jendaurrean jartzea erabaki zuen. Azken horretarako iragarki bana argitaratu zuen Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean (87 zenbakia. 2005eko abuztuaren 3a), El Correo egunkarian (2005eko irailaren 23a) eta udal iragarki taulan.

B) Jendaurrean egon zen bitartean ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, udalbatzak 2005eko irailaren 7ko aparteko osoko bilkuran behin-behineko onarpena eman zio espedienteari.

Hirugarrena.- Martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren 9/2005 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz, behin betiko onarpena eman edo ez Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuari dagokio, plan partziala aztertu eta espedienteak jendaurrean arauzko epea bete ondoren.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Plan partzialaren zehaztapenak.

Plan partzialak 1.383,10 metro koadroko lurzati bat zuzkidura edo horniduratarako zona izendatzen eta mugatzen du. Zona horrek bere baitan (oroit-idazkiaren 16. paragrafoa eta ekonomia eta finantza arloko azterlanaren 3. paragrafoa) hezkuntza eta kultura zentroak eraikitzeko 987,10 metro koadro (Hirigintza Planeamenduaren Arautegiaren 45. artikulua) eta Interes publiko eta sozialeko zerbitzuak eraikitzeko 396 metro koadro (Hirigintza Planeamenduaren Arautegiaren 10. artikulua) gordetzen ditu.

Hezkuntza eta kultura zentroak eraikitzeko gordetako 987,10 metro koadroak ez dira nahikoa. Aipatutako eranskinak, gutxienez, 1.000 metro koadro izan behar dutela arautzen du.

Bestalde, ordenantzen 6. artikuluak, hots, kalifikazio xehatuari buruzkoak, kultura hornigaietarako zona eta interes publiko eta sozia-

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la resolución, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, a 28 de diciembre de 2005.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– La Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, MARTA ALAÑA ALONSO.

***Órdenes Forales***

## DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

**8.653**

**ORDEN FORAL 1128/2005, de 19 de diciembre, en relación con la aprobación deinitiva del expediente de Plan Parcial SUS-R-7 del Sector Residencial SR-1 en Elciego.**

ANTECEDENTES

Primero.- En fecha 29 de septiembre de 2005 y número de registro de entrada 2381 se recibió un oficio del Ayuntamiento de Elciego remitiendo el expediente del Plan Parcial SUS-R7 del Sector Residencial SR-1 con el fin de que le fuera concedida la aprobación definitiva si procediera.

Examinado el expediente aportado se observó la falta del documento indicado en el artículo 46 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico garante del cumplimiento de los compromisos a contraer entre el urbanizador y el Ayuntamiento, el cual fue solicitado al ayuntamiento, quedando suspendido el plazo para el cómputo del silencio administrativo positivo.

El citado documento, constituido por fotocopias del aval presentado por los promotores, se recibió el 14 de noviembre de 2005 con registro de entrada número 17487.

Segundo.- Del examen de los documentos que componen el expediente se desprenden los siguientes hechos fundamentales en su tramitación:

A) Por Acuerdo Plenario de fecha 8 de julio de 2005, se acordó aprobar inicialmente el Plan Parcial y someterlo a información pública por el plazo de un mes, haciéndose efectiva mediante la inserción de los respectivos anuncios en el boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava número 87, de 3 de agosto de 2005, en el diario “El Correo” de 23 de septiembre de 2005 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

B) Dentro del plazo de exposición pública no fue presentada alegación alguna procediendo el Ayuntamiento, en sesión extraordinaria del día 7 de septiembre de 2005, a la aprobación provisional del expediente.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el Decreto Foral del Consejo de Diputados número 9/2005, de 1 de marzo, la aprobación definitiva, si procediese, corresponde al Diputado titular del Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente, a la vista del documento del Plan Parcial y del resultado de su exposición pública durante el plazo legal.

FUNDAMENTOS

Primero.- En relación con las determinaciones del Plan Parcial.

El Plan Parcial determina una parcela de 1.383,10 $m^2$ como “Zona Dotacional” que reune en su ámbito, (apartado 16 de la Memoria y apartado 3 del Estudio económico-financiero), 987,10 $m^2$ para la reserva de terrenos para centros culturales y docentes señalada en el artículo 45 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico y 396 $m^2$ para la reserva de servicios de interés público y social señalada en el artículo 10 del mismo texto legal.

Dicha superficie de 987,10 $m^2$ es insuficiente, toda vez que el artículo 5 del citado anexo prescribe un mínimo de 1.000 $m^2$ para centros culturales y docentes.

Por otra parte, en el artículo 6 de las Ordenanzas se indica que la Calificación pormenorizada del suelo diferencia la zona de equi-

leko zerbitzuetarako zona bereizten ditu. Bereizketa hori, ordea, ez da egiten agirietan. Agiri horietan batzuk zein besteak zuzkidura edo hornidurataarako zonaren barruan ageri dira. Garrantzitsua da zona biak bereiztea, zeren eta hezkuntza eta kultura zentroetarako zonaren gabezia (2 $m^2$/etxebizitza = interes publiko eta sozialeko zerbitzuetarako 198 metro koadro) berdintzeko, ez baitira 396 metro koadro behar. Horietan ez da irabazi asmokoetarako 0,5 $m^2e/m^2l$ aplikatu behar. Horiek, horretarako erabiliko den lurzatian, solairu bakarreko edo biko eraikinean eraikiko dira eta eskudun organoek zehaztutakoetara egokituko.

Ondorioz, plan partzialak zeregin bi horietako zonak zuzkidura edo horniduretarako zonan sartu beharko ditu, eta horretarako aldez aurretik aipatutako kontraesanak zuzendu; hau da, "turistiko" ordez "publiko" jarriko du eta, geroago zehaztuko den eran, zona biek ibilgailuetarako eta oinezkoentzako sarrera-errepidea izango dute.

Bestalde, Hirigintza Planeamenduko Arautegiak 45.g) artikuluan xedatutakoaren ildotik, plan partzialak sektorean zerbitzua eskaini behar duten zabor-ontzien neurriak eta horiek egongo direneko lekuak jasoko ditu. Toki horiek horretarako egokiak izango dira eta udalak arlo horretarako zehaztutako politikarekin bat etorriko.

Bigarrena.- Erabilera eta jabari publikoko espazio libreen sistema.

Hirigintza Planeamenduko Arautegiak eranskinaren 1. artikuluan xedatzen du lorategiak erabilera eta jabari publikoko espazio libreen sistemako zati direla zenbait baldintza betetzen badira. Hona hemen horiek: 1000 metro koadro baino gehiago izatea eta bertan, gutxienez, 30 metro diametroko biribila egin ahal izatea. Beraz, proiektuan "Zona berde" izendatutako bi zonetako batek baino ez ditu betetzen horiek.

Erabilera eta jabari publikoko espazio libreen sistema lorategiek eta umeentzako jolastokiek eta aisialdirako tokiek osatzen dute. Horien trazadurak Hirigintza Planeamenduko Arautegiak eranskinaren 49, 3 eta 10. artikuluan eta Irisgarritasun Baldintzei buruzko 68/2000 Dekretuak xedatutakoak beteko ditu. Plan partzialean 10, 11 eta 12 lurzatien egungo topografiak ezinezko egiten dute berez izan behar dituzten baldintzak (49. artikulua) bete ahal izatea, ezta aldapa, ibilbide eta abarrei (aipatutako dekretuaren II. eranskinaren 3.6 artikulua) buruzkoak ere. Umeentzako jolastokiak eta aisialdirako tokiak direla eta, etxebizitzako hiru metro koadroek 297 metro koadro gordetzera behartzen dute. Oroit-idazkiaren 24. orrialdean, berriz, 240 metro koadrori buruz hitz egiten da eta agirietan 96 metro koadro baino ez dira gordetzen. Ondorioz, kontraesan horiek guztiak zuzendu egin beharko dira.

Hirugarrena.- Ibilgailu eta oinezkoentzako barruko bide sarea.

Hirigintza Planeamenduko Arautegiak 51. artikuluan xedatzen du ekipotarako gordetako areak bide eta oinezkoentzako esparruen arabera zehaztuko direla, irisgarritasuna bermatu eta planak jasotako hirigintza azpiegiturarekin bat etor daitezen. Zuzkidura edo horniduretarako zonak, ordea, ez du ibilgailu eta oinezkoen sarbideari buruzko plan partzialik.

Hirigintza Planeamenduko Arautegiak 52. artikuluan xedatzen du sektoreko bide sareak eta bide sare orokorrak bat egiten duten lekua zehaztuko dela, baita bidegurutze horietako eta norabide aldaketetako behin betiko sestrak ere. Hala eta guztiz ere, ez da errepiderik sektoreko lurzati ez den bat dela medio Foru Aldundiaren etorbidearekin bat egiten duenik eta ez da horretarako sestrarik zehazten.

Bestalde, 447 eta 454,50 koten arteko oinezkoentzako ibilbideak zehazten dira, ez haien ezaugarri guztiak, ordea, eta hori ez dator bat 52.1 artikuluarekin eta Irisgarritasunaren 68/2000 Dekretuarekin, zeren eta hasiera batean, gutxienez, % 18ko aldapa edo handiagoak baititu.

Ibilgailuen aparkalekuei dagokienez, ibilgailuetarako errepideetariko bateko lerroko 24 aparkalekuek mugakide diren lurzatietarako sarbideetarako ibiak izatea galarazten dute. Eskasia hori plan partzialak zuzendu behar du, ez hirigintza proiektuak. Arrazoi berak erabil daitezke argindar transformadorea jasoko duen lurzatiaren ondoko aparkalekuei dagokienez, zeren eta, Hirigintza Planeamenduko Arautegiak 51. artikuluan xedatutakoaren ildotik, aparkalekuetarako gordetako lurrak lurrazalean egindakoetarako gordeko baitira, ekipoetarako sarbidea bermatze aldera.

Era berean, kota apaleneko barru bidean aparkaleku proposamenik ez egoteak zirkulazio arazoak sortuko lituzke ibilgailuek errepidean ber-

pamiento cultural y la zona de equipamiento de interés "turístico" y social, mientras que en la documentación se funden en la denominada zona dotacional. Resulta importante diferenciar ambas áreas, toda vez que, al margen de la pequeña insuficiencia de terreno descrita por el área docente, cuya edificación se acomodaría a los módulos determinados por el Organismo competente, los 2 $m^2$/viv = 198 $m^2$ necesarios para los usos de interés público y social no necesitan 396 $m^2$ de zona afectada, ya que no hay que aplicar en su caso, la edificabilidad de 0,5 $m^2c/m^2s$ destinada al uso lucrativo, sino ser edificados en una o dos plantas en la parcela que quiera destinarse para ello.

En consecuencia, el Plan Parcial deberá determinar la ubicación de ambos usos en la "Zona dotacional", resolviendo las contradicciones expuestas, sustituyendo "turístico" por "público" y dotando a ámbas de accesos rodado y peatonal según se expone más adelante.

Por otra parte, y a tenor de lo dispuesto en el artículo 45.g) del citado R.P.U., el Plan Parcial deberá trazar la ubicación y tamaño de espacios destinados a ubicar contenedores de basuras que deban dar servicio al Sector o recogedores, en lugares adecuados y de acuerdo con la política municipal al respecto.

Segundo.- En relación con el Sistema de Espacios Libres de dominio y uso público.

El artículo 1 del Anexo al Reglamento de Planeamiento Urbanístico determina que los jardines serán computables como elementos pertenecientes al sistema de espacios libres de dominio y uso público cuando se respeten una serie de condiciones entre las que está la de presentar una superficie no inferior a 1000 $m^2$ y en la que pueda inscribierse una circunferencia de 30 m de diámetro mínimo, por lo que, de las dos zonas señaladas como "Zona Verde" en el proyecto, sólo una de ellas resulta computable, ya que la otra no cumple dichos requisitos.

El sistema de espacios libres de dominio y uso público se compone de jardines y de áreas de juego y recreo de niños cuyo trazado ha de cumplir tanto lo dispuesto en los artículos 49 y 3 y 10 del anexo de R.P.U., así como en el Decreto 68/2000 sobre condiciones de accesibilidad. En el Plan Parcial, la topografía de las actuales parcelas 10, 11 y 12, hacen imposible cumplir las condiciones de su finalidad esencial (art. 49) ni las de pendientes, itinerarios, etc., del artículo 3.6 del Anexo II de dicho Decreto. En cuanto a las áreas de juego y recreo de niños, los 3 $m^2$/vvda obligan a reservar para tal fin 297 $m^2$, mientras que en la pág. 24 de la memoria se habla de 240 $m^2$ y en los documentos se reservan únicamente unos 96 $m^2$. En consecuencia, deberán solventarse las contradicciones existentes al respecto.

Tercero.- En relación con las redes viarias y peatonal interiores.

El artículo 51 del R.P.U. indica que las áreas destinadas a equipamiento, su situación se establecerá relacionándola en relación con las redes viarias y peatonales, a fin de garantizar su accesibilidad y obtener su integración en la estructura urbanística del Plan. Sin embargo, la denominada "Zona dotacional" carece en el Plan Parcial de acceso rodado y de acceso peatonal.

El artículo 52 del R.P.U. indica que se determinará la conexión de la red de comunicaciones propias del sector y su conexión con el sistema general de comunicaciones, así como que se determinarán las rasantes definitivas al menos en los puntos de cruce y en los cambios de dirección. Sin embargo, existe un vial rodado que carece de comunicación con la Avda. de la Diputación Foral, a través de una parcela ajena al sector y no se determinan dichas rasantes.

Por otra parte, se define una parte de los itinerarios peatonales entre las cotas 447 y 454,50 sin definición concreta de sus características, que resulta incompatible con el artículo 52.1 y con el Decreto 68/2000 de Accesibilidad ya que, en principio, presenta una pendiente de al menos un 18%.

En cuanto a los aparcamientos de vehículos se refiere, hay que señalar que los 24 aparcamientos en línea de uno de los viales rodados, invalida cualquier posible vado de acceso a las parcelas adyacentes, problema éste que ha de resolver el Plan Parcial, sin que sea posible dejar su solución al Proyecto de Urbanización. Idéntico razonamiento puede aplicarse respecto de los aparcamientos junto a la parcela destinada a acoger el transformador de energía eléctrica, ya que, además, la reserva de terrenos para aparcamientos ha de determinarse para los que se situen en superficie, con arreglo a lo dispuesto en el artículo 51 del R.P.U., en cuanto a garantizar la accesibilidad de los equipamientos.

Igualmente, la inexistencia en la propuesta, de aparcamientos en el vial interior de menor cota, causaría sin duda, en la práctica tapo-

tan aparkatuko luketelako. Beraz, gorago aipatutako artikulua betez, errepide horretan aparkalekuak egin beharko dira. Aparkaleku horiek Damas zidorrarekin lerrokatuta dauden lurzatiei eskainiko diete zerbitzu.

Ondorioz, dauden kontraesan horiei ebatzia eman beharko zaie.

Halaber, plan partzialak aparkaleku pribatuei buruzko aurreikuspenak jaso behar ditu eta bizitegietarako lurzatietarako eskatutako aparkaleku kopurua zehaztu dagokion ordenantzan (52.4 artikulua).

Laugarrena.- Oroit-idazkiaren eta arautegiaren alderdiak.

- Oroit-idazkiaren 14. puntuan, espaloi eta oinezkoen bideei dagokienez, 1,80 metro ordez 2,00 metro jarriko da.

- Ordenantzen 6. artikuluan “interes turistiko eta sozialeko ekipoetarako zona” idatzi ordez “interes publiko eta sozialeko zona” idatziko da.

- Ordenantzen 16, 17, 18 eta 22. artikuluetan Traba Arkitektonikoei buruzko 59/81 Dekretuari egindako aipamenen ordez indarrean dauden arauak aipatutako dira.

“Zona berde publikoa” esamoldearen ordez “lorategiak” hitza erabiliko da erabilera eta jabari publikoko espazio libre horiei aipamen egitean.

Horregatik guztiagatik, eta aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- Behin betiko onartzea Elciegoko SR-1 bizitegitarako sektoreko SUS-R-7 plan partzialaren espedientea ondoko aldaketekin:

*1.- Plan partzialaren zehaztapenak*

Zuzkidura edo hornidurетarako area bat zehaztuko da. Area hori bitan banatuko da. Batetik, kultura eta hezkuntza arloko ekipoak egongo dira eta, bestetik, interes publiko eta sozialeko ekipoak. Biek izan beharko dute sarrera, bai ibilgailuetarako, bai oinezkoentzako. Lehenengoak, gutxienez, 1.000 metro koadro izango ditu eta bigarrenak 198 metro koadroko eraikina jasotzeko besteko azalera. Azalera hori eraikigarritasunari buruzko xedapenetan zehaztuko da.

Dagokion udal arautegiaren arabera, sektoreari zerbitzua eskainiko dioten zabor-ontziak jarriko diren lekuen neurriak zehaztuko dira.

*2.- Erabilera eta jabari publikoko espazio libreen sistema*

Lorategietarako areak irisgarritasun, eguzkimendu eta oinezkoen ibilbideei buruzko baldintzen gaineko arautegia beteko du. Horretarako lurraren egungo topografia aldatzeko beharrezko diren lanak eta lan horietarako aurrekontuak zehaztuko dira.

Umeentzako jolas eta aisialdirako tokiak, gutxienez, 297 metro koadro izango ditu.

*3.- Sektore barruko komunikazio sareak eta horien eta kanpo sareen arteko lotura*

Zuzkidura edo hornidurетarako areak ibilgailu eta oinezkoentzako sarrera izango du, nola hezkuntza eta kultura arloko ekipoetara hala interes publiko eta sozialeko zerbitzuetara heltzeko.

Argindar transformadorea jasoko duen lurzati ondoko barru bideen eta Foru Aldundiaren etorbidearen lotunea zuzenduko da. Horretarako plan partzialak deskripzio fisikoa ez ezik erabiliko den administrazio sistema edo metodoa ere jasoko du.

Bidegurutzeetan eta norabide aldaketetan bide-sareko sestrak zehaztuko dira.

447 eta 454,50 koten artean proposatutako oinezkoen ibilbidearen ezaugarriak zehaztuko dira, irisgarritasun baldintzak betetzen direla bermatze aldera.

Lurzati pribatuetara sartzeko ibiak eta, aurrekoekin erkatuz gero, lur gaineko aparkalekuek izango duten kokapena zehaztuko dira.

447 kotan hasten den barru bidean aparkalekuak egingo dira. Aparkaleku horiek Damas zidorrarekin lerrokatuta dauden lurzatiei eskainiko diete zerbitzua.

Dagokion ordenantzan bizitegitarako lurzatietarako eskatutako aparkaleku kopurua eta horiek bete beharrekoak zehaztuko dira.

namientos circulatorios al ocuparse el vial rodado para los inevitables estacionamientos de vehículos, por lo que, asimismo, en cumplimiento del articulado antes citado, habrán de proveerse aparcamientos en tal vial, dando servicio a las parcelas con alineación a la Senda de las Damas.

Deberán en consecuencia, resolverse las contradicciones al respecto.

Asimismo, el Plan Parcial debe establecer las previsiones en relación con los aparcamientos de carácter privado, concretándose en la correspondiente Ordenanza el número de aparcamientos exigidos en cada parcela de Uso residencial (artículo 52.4).

Cuarto.- En relación con aspectos puntuales de la memoria y de la normativa.

- En el número 14 de la memoria en los apartados referentes a Aceros y Via Peatonal deberá sustituirse 1,80 m por 2,00 m.

- En el artículo 6 de las Ordenanzas deberá sustituirse “Zona de equipamiento de interés turístico y social” por “Zona de interés público y social”.

- En los artículos 16, 17, 18 y 22 de las Ordenanzas, deberán sustituirse las referencias al Decreto 59/81 sobre barreras urbanísticas, por la normativa en vigor.

Deberá sustituirse la expresión “Zona verde pública” por “Jardines” al referirse a tales espacios libres de uso y dominio público.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente del Plan Parcial SUS-R-7 del Sector Residencial SR-1 en Elciego, con las siguientes modificaciones:

*1.- Respecto de las Determinaciones del Plan Parcial*

Se determinará un área para dotaciones diferenciando la ubicación del equipamiento cultural-docente y del equipamiento de usos de interés público y social, de manera que ambos usos dispongan de acceso rodado y acceso peatonal, con superficies mínimas de 1.000 $m^2$ el primero y la superficie adecuada para acoger 198 $m^2$ de edificación la segunda, según la disposición edificatoria que se prevea para la misma.

Se trazarán y dimensionarán espacios suficientes destinados a ubicar recogedores o contenedores de basuras para dar servicio al Sector, según la Normativa Municipal al respecto.

*2.- Respecto al Sistema de Espacios Libres de dominio y uso público*

El área desinada a jardines se trazará y definirá de manera que se cumpla lo dispuesto en la Normativa al respecto en cuanto a condiciones de accesibilidad, soleamiento e itinerarios peatonales se refiere, señalando y presupuestando cuantas obras sean necesarias para modificar la actual topografía del terreno afecto a tal fin.

El área destinada a juego y recreo de niños medirá al menos 297 $m^2$.

*3.- Respecto de las redes de comunicación interiorres al Sector y su conexión con las redes exteriores*

Se dotará al área destinada a usos dotacionales de accesos rodado y peatonal, tanto al equipamiento docente-cultural como al de servicios de interés público y social.

Se resolverá la conexión del vial interior situado junto a la parcela destinada a acoger el transformador eléctrico, con la Avda. de la Diputación Foral, incluyendo el Plan Parcial tanto su descripción física como el Sistema o Método administrativo a utilizar al respecto.

Se determinarán las rasantes de la vialidad interior al menos en los puntos de cruce y en los cambios de dirección.

Se definirán las características del itinerario peatonal propuesto entre las cotas 447 y 454,50 de manera que se garantice el cumplimiento de las debidas condiciones de accesibilidad.

Se definirán los vados de acceso a las parcelas privadas y la situación de los aparcamientos en superficie en relación con los anteriores.

Se dotará al vial interior rodado que inicia en la cota 447 de un número de aparcamientos anejos al mismo que den servicio a las parcelas con alineación a la Senda de las Damas.

Se establecerán en la correspondiente Ordenanza el número y circunstancias de los aparcamientos exigidos en cada parcela de uso residencial.

*4.- Agiriaren zenbait alderdi*

- Oroit-idazkiaren 14. puntuan, espaloi eta oinezkoen bideei dagokienez, 1,80 metro ordez 2,00 metro jarriko da.

- Ordenantzen 6. artikuluan “ekipo turistiko eta sozialen zona” idatzi ordez “ekipo publiko eta sozialen zona” idatziko da.

- Ordenantzen 16, 17, 18 eta 22. artikuluetan Traba Arkitektonikoei buruzko 59/81 Dekretua aipatu ordez irisgarritasun baldintzei buruzko 68/2000 Dekretua aipatuko da.

- “Zona berde publikoa” esamoldearen ordez “lorategiak” hitza erabiliko da erabilera eta jabari publikoko espazio libre horiei aipamen egitean.

Bigarren.- Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, zuzendutakoan, berriro jendaurrean jarri gabe, espedientea zuzenean igorriko zaio foru aldundiari, behin betiko berretsi dezaten.

Hirugarren.- Foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea.

Laugarren.- Foru agindu honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, egoki iritzi eta abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Aukeran, eta aurrean aipatutako errekurtsoa jarri aurretik, berraztertzeko errekurtsoa, ebazpena eman duen organoaren aurrean. Horretarako, hilabete izango da, hura jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko abenduaren 19a.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

**8.739**

**1159/2005 FORU AGINDUA, abenduaren 22koa, Hirigintza eta Ingurumen Saileko diputatuaren apirilaren 4ko 247/2002 Foru Aginduan antzemandako huts materialaren zuzenketa espedientearen ingurukoa; izan ere, foru agindu horren bidez, Amurrioko UER M-2ko Kooperaziorako Elkarte Administratiboa Arabako Hirigintza Erakunde Laguntzaileen Erregistroan sartzeko agindu zen.**

Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean 2005eko abenduaren 12an sarrera izan zuen idazki baten bidez, Amurrioko Udalak eskatu zuen Hirigintza eta Ingurumen Saileko diputatuaren apirilaren 4ko 247/2002 Foru Aginduan antzemandako huts materiala zuzentzeko; izan ere, foru agindu horren bidez, Amurrioko UER M-2ko Kooperaziorako Elkarte Administratiboa Arabako Hirigintza Erakunde Laguntzaileen Erregistroan sartzeko agindu zen.

Udalak dioenez, UER M-2ko Kooperaziorako Elkarte Administratiboa agertu beharrean, Ugartebetxiko Kooperaziorako Elkarte Administratiboa agertu beharko da; izatez, akats hori dela eta, UER M-2ko ziurtagiria igorri zen, Ugartebetxiko Elkartearena bidali beharrean, eta oraingoan, ordea, Ugartebetxikoa erantsi da.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 105.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, lehen eskatutako zuzenketa egin behar da.

Ondorioz, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Hirigintza eta Ingurumen Saileko diputatuaren apirilaren 4ko 247/2002 Foru Aginduan antzemandako huts materiala zuzentzea; izan ere, foru agindu horren bidez, Amurrioko UER M-2ko Kooperaziorako Elkarte Administratiboa Arabako Hirigintza Erakunde Laguntzaileen Erregistroan sartzeko agindu zen, baina Ugartebetxiko Kooperaziorako Elkarte Administratiboa agertu behar zen.

Bigarrena.- Kasuan kasuko zuzenketa egitea Arabako Hirigintza Erakunde Laguntzaileen Erregistroan eta ebazpen hau Arabako Lurralde Historikoko ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko abenduaren 22a.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

*4.- Respecto a aspectos puntuales del Documento*

- En el número 14 de las Memoria, se sustituirá 1,80 m por 2,00 m en los apartados referentes a Aceras y a Vía Peatonal.

- En el artículo 6 de las Ordenanzas se sustituirá la “Zona de equipamiento turístico y social” por “Zona de equipamiento público y social”.

- En los artículos 16, 17, 18 y 22 de las Ordenanzas, se sustituirá la referencia al Decreto 59/81 sobre barreras urbanísticas por la referencia al Decreto 68/2000 sobre condiciones de accesibilidad.

- Se sustituirá la expresión “Zona verde pública” por “Jardines” al referirse a tales espacios libres de uso y dominio público.

Segundo.- Las modificaciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de poder proceder a su sanción definitiva.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente, y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Lo que se publica para general conocimiento.

Vitoria-Gasteiz, a 19 de diciembre de 2005.– La Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, MARTA ALAÑA ALONSO.

## DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

**8.739**

**ORDEN FORAL 1159/2005, de 22 de diciembre, en relación con expediente de corrección del error material advertido en la Orden Foral número 247/2002, de 4 de abril, del Diputado de Obras Públicas y Urbanismo, por la que se ordenaba la inscripción de la Asociación Administrativa de Cooperación de la UER M-2 de Amurrio, en el Registro de Entidades Urbanísticas Colaboradoras de Álava.**

Mediante escrito, con fecha de entrada en el Registro General de la Diputación Foral de Álava del día 12 de diciembre de 2005, el Ayuntamiento de Amurrio solicita la rectificación del error advertido en la Orden Foral número 247/2002, de 4 de abril, del Diputado de Obras Públicas y Urbanismo, por la que se ordenaba la inscripción en el Registro de Entidades Urbanísticas Colaboradoras de Álava de la Asociación Administrativa de Cooperación de la UER M-2.

Señala el Ayuntamiento que en vez de Asociación Administrativa de Cooperación de la UER M-2, debe decir Asociación Administrativa de Cooperación de Ugartebetxi, ya que por error se remitió una certificación de la UER M-2 cuando debió ser remitida la que se refería a la Asociación Ugartebetxi y que ahora se acompaña.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 105.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de régimen jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, procede efectuar la corrección solicitada.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen

DISPONGO:

Primero.- Corregir el error material advertido en la Orden Foral número 247/2002, de 4 de abril, del Diputado de Obras Públicas y Urbanismo, por la que se ordenaba la inscripción en el Registro de Entidades Urbanísticas Colaboradoras de Álava de la Asociación Administrativa de Cooperación de la UER M-2, en el sentido de que debe decir Asociación Administrativa de Cooperación de Ugartebetxi.

Segundo.- Efectuar la corrección oportuna en el Registro de Entidades Urbanísticas Colaboradoras de Álava y publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Lo que se publica para general conocimiento.

Vitoria-Gasteiz, a 22 de diciembre de 2005.– La Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, MARTA ALAÑA ALONSO.